

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA), 2014ko 1. hiruhilekoa

Euskal AEko biztanleria landuna %0,5 jaitsi eta langabezia-tasa %15,5 da 2014ko lehen hiruhilekoan

Jarduera-tasak %57,2tan dirau, baina okupazio-tasa hiru puntu hamarrenez jaitsi da

Euskal AEko lan-merkatuko 2014ko lehen hiruhilekoko datuen arabera, okupatuak 886.300 ziren, hiru hilabete lehenago baino 4.800 gutxiago, (%-0,5), Eustaten datuen arabera. Langabezia-tasa %15,5 da; 2013ko laugarren hiruhilekoaren aldean 0,3 ehuneko puntu gehiago.

Landunen eta langabeen bilakaeren ondorioz, jarduera-tasa %57,2 da 2014ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan bezalaxe.

Bizkaian 4.000 okupatu gutxiago daude, Gipuzkoan 1.300; Araban 700 gehiago. Gizon okupatuak aurreko hiruhilekoan baino 3.400 gutxiago dira eta emakumeak 1.300.

Okupazio-jaitsierarik handiena, industrian eta zerbitzuetan

Biztanle okupatuak 6.200 gutxiago dira industrian, 2.700 zerbitzuetan eta 800 nekazaritzan; eraikuntzan 5.000 gehiago.

Okupazio-tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren gainean landunek duten ehunekoa, %63,4 da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,3 puntu gutxiago. Tasa hori gizonezkoentzat %67,2koa da eta emakumezkoentzat %59,7koa.

Okupazio-tasarik altuena, Gipuzkoak, %66,3, aurreko hiruhilekoaren aldean 0,2 puntu gehiago; Arabak %64, 0,2 puntu gehiago; baxuena Bizkaiak, %61,5, 0,6 ehuneko puntu gutxiago azken hiruhilekoan.

Kontratu mugagabea duten soldatuen kopurua murriztu egin da, 532.900 delarik; aldi baterakoa dutenak (kontraturik ez dutenak barne) gutxiago dira, 164.200 guztira.

Familia-etxeen %5,7tan pertsona aktibo guztiak langabezian daude

2014ko lehen hiruhilekoan zenbatesten da Euskal AEn gutxi gorabehera dauden 858.400 (aurreko hiruhilekoan baino 5.900 gehiago) familia-etxeetako heren batean ez dagoela pertsona aktiborik. Erdia pasatxoan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 2.900 familia gutxiago; pertsona aktibo guztiak langabezian dituztenak 48.900 dira (guztirakoaren %5,7).

Biztanleria jardueraren arabera. 2014ko 1. hiruhilekoa

	2014ko 1. hiruhilekoa	2013ko 4. hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoaren aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.833,6	1.836,6	-3,0	-0,2
AKTIBOAK	1.049,1	1.051,2	-2,1	-0,2
Gizonak	557,0	560,0	-3,0	-0,5
Emakumeak	492,1	491,1	+1,0	+0,2
Araba/Álava	161,5	158,4	+3,1	+2,0
Bizkaia	546,4	549,7	-3,3	-0,6
Gipuzkoa	341,3	343,0	-1,7	-0,5
BIZTANLERIA LANDUNA	886,3	891,1	-4,8	-0,5
Gizonak	471,2	474,6	-3,4	-0,7
Emakumeak	415,1	416,4	-1,3	-0,3
Araba/Álava	134,5	133,8	+0,7	+0,5
Bizkaia	455,3	459,3	-4,0	-0,9
Gipuzkoa	296,6	297,9	-1,3	-0,4
Nekazaritza	7,3	8,1	-0,8	-9,9
Industria	197,4	203,6	-6,2	-3,0
Eraikuntza	47,6	42,6	+5,0	+11,7
Zerbitzuak	634,0	636,7	-2,7	-0,4
Soldatakoak	697,1	703,8	-6,7	-1,0
- Kontratu mugagabea dutenak	532,9	537,7	-4,8	-0,9
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	164,2	166,1	-1,9	-1,1
Ez soldatakoak	189,2	187,3	+1,9	+1,0
LANGABEAK	162,8	160,1	+2,7	+1,7
Gizonak	85,8	85,4	+0,4	+0,5
Emakumeak	77,0	74,7	+2,3	+3,1
16 - 24	17,7	17,5	+0,2	+1,1
25 - 44	91,7	91,0	+0,7	+0,8
45 eta gehiago	53,4	51,6	+1,8	+3,5
Araba/Álava	27,0	24,6	+2,4	+9,8
Bizkaia	91,1	90,4	+0,7	+0,8
Gipuzkoa	44,7	45,1	-0,4	-0,9
EZ-AKTIBOAK	784,5	785,4	-0,9	-0,1
ETXEBIZITZAK	858,4	852,5	+5,9	+0,7
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	583,2	584,7	-1,5	-0,3
- Guztiak okupatuak	453,7	456,6	-2,9	-0,6
- Guztiak langabeak	48,9	49,2	-0,3	-0,6
Aktiborik gabeko etxebizitzak	275,1	267,7	+7,4	+2,8

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Langabezia-tasa %15,2tik %15,5era hazi da

Langabeak, hots, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak, urteko lehen hiruhilekoan 162.800 direla zenbatetsi da, 2.700 gehiago aurreko

hiruhilekoan baino. Gizonezko langabeak 85.800 dira, 400 gehiago. Emakumezkoak, 2.300 gehiago hiruhilekoan, guztira 77.000.

2014ko lehen hiruhileko datuen arabera, langabezia-tasa %15,5 da, 0,3 puntu gehiago aurreko hiruhilekoaren aldean. Gizonen langabezia, %15,4 (ehuneko 0,1 puntu gehiago); emakumeena 0,4 puntuz hazi da, %15,6 delarik. Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, %37,2; horrenbestez, 16-24 urte bitarteko 17.700 gazte aktibo daude langabezian.

Langabe-hazkunderik handiena, Araban (+2.400); langabezia-tasa, %16,7. Bizkaian %16,7ko tasa dugu; langabe kopuruan 700 pertsona gehiago, 91.100 guztira. Gipuzkoan aurreko hiruhilekoan bezalaxe dago langabezia, %13,1.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2014ko otsailean, 28-EBko langabezia-tasa %10,6 zen, eta Espainiakoa %25,6.

Biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak. 2014ko 1. hiruhilekoa

	2014ko 1. hiruhilekoa	2013ko 4. hiruhilekoa	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoaren aldean (e.p. *)
JARDUERA-TASA	57,2	57,2	+ 0,0
Gizonak	62,8	63,1	-0,3
Emakumeak	52,0	51,7	+0,3
Araba/Álava	60,2	59,0	+1,2
Bizkaia	56,0	56,3	-0,3
Gipuzkoa	57,8	58,0	-0,2
BETETZE-TASA	63,4	63,7	-0,3
Gizonak	67,2	67,5	-0,3
Emakumeak	59,7	59,8	-0,1
Araba/Álava	64,0	63,8	+0,2
Bizkaia	61,5	62,1	-0,6
Gipuzkoa	66,3	66,1	+0,2
LANGABEZIA TASA	15,5	15,2	+ 0,3
Gizonak	15,4	15,3	+0,1
Emakumeak	15,6	15,2	+0,4
16 - 24	37,2	36,7	+0,5
25 - 44	16,8	16,5	+0,3
45 eta gehiago	11,7	11,4	+0,3
Araba/Álava	16,7	15,5	+1,2
Bizkaia	16,7	16,5	+0,2
Gipuzkoa	13,1	13,1	+0,0
EZ-AKTIBOTASUN TASA	42,8	42,8	+ 0,0

*e.p. = Aldea, ehunekotan

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Ohar metodologikoa

2014ko lehen hiruhileko honetatik, Biztanleria Jardueraren Arabera Inkestaren emaitzak kalkulatzeko 2026ko Biztanleria-Proiektzio berriekin. Eustatek Biztanleria-Proiektzioak bost urtez behin eguneratzen ditu, eta 2026ko hauen abiapuntua 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuak

dira. 2006 biztanle-oinarri hartuta argitaratutako datuen aldean, 16 urte eta gehiagoko biztanleak 37.600 gutxiago dira 2013ko laugarren hiruhileko honetan.

Datorren maiatzean 2006-2013 aldiko informazio guztia biztanle-oinarri berriaz eguneratuko da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

(BJA) Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

(BJA) Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko datu-bankua